



KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, 41/2017 ZENBAKIA DUEN ESPEDIENTEA AMAITUTZAT EMATEA ETA ARTXIBATZEA EBAZTEN DUENA. ESPEDIENTE HORI ARRAUNKETAKO EUSKAL FEDERAKUNDEKO PRESIDENTEAK 2017KO MAIATZAREN 12AN HARTUTAKO ERABAKIARI (██████████ KIROLARI JAUNAREN 2017KO DENBORALDIRAKO LIZENTZIA ETETEA) JARRITAKO ERREKURTSOARI BURUZKOA ZEN.

Espedientea: 41/2017

AURREKARIAK:

LEHENA.- ██████████ jaunak, Itsasoko Ama Arraun Elkartearen izenean eta haren ordezkari gisa, eta ██████████ kirolari jaunak errekurtsoa jarri zuten, Arraunketako Euskal Federakundeko presidentek 2017ko maiatzaren 12an emandako ebazpenaren aurka –Santurtziko postabulegoan aurkeztu zuten, 2017ko maiatzaren 19an, eta 2017ko maiatzaren 24an Eusko Jaurlaritzaren erregistroan sartu zen–. Errekurritutako ebazpenaren bidez honako hau erabaki zen: «*Federazio honek ██████████ kirolariari 2017ko denboraldirako emandako lizentzia etenda geratuko da, Kantabriako Arraunketa Federazioak Arraunketako Euskal Federakundeari La Planchada Arraunketa Kirol Klubaren askatasun-agiria bidali arte. Beraz, aipatutako kirolariak ezingo du baliatu federazio honek emandako federazio-lizentzia; hau da, ezingo du parte hartu inongo estropada ofizialetan, eta hala jakinaraziko zaie bai Gipuzkoako Arraunketa Federakundeari bai Bizkaikoari, kirol-proba ofizial guztietan bete dadin*».



BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak (aurrerantzean, KJEB) errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen, eta Arraunketako Euskal Federakundeari espedientea eskatu zion. Horrekin batera, alegazioak egiteko eta, hala bazegokion, egokitzen jotzen zituen froga-eginbideak proposatzeko aukera eman zion.

Era berean, Kantabriako Arraunketa Federazioari eta Astilleroko La Planchada Arraunketa Klubari entzuteko izapidea egin zen.

HIRUGARRENA.- Errekeritutako alderdiek alegazioak aurkezteko aukera baliatu zuten. Nabarmentzekoa da, bereziki, 2017ko ekainaren 19an Arraunketako Euskal Federakundeak bidalitako dokumentazioa jaso zela. Horretan, 2017ko ekainaren 9an La Planchada Arraunketa Klubak [REDACTED] jaunari emandako askatasun-agiria atxiki zuen; Kantabriako Arraunketa Federazioak 2017ko ekainaren 13an berretsi zuen agiria.

Hori ikusita, Arraunketako Euskal Federakundeak, 2017ko ekainaren 14an, 2017ko maiatzaren 12an hartutako Ebazpena baliogabetzea erabaki zuen. Ebazpen haren arabera, [REDACTED] jaunaren lizentzia, [REDACTED] zenbakia zuena eta Federazioak 2017ko otsailaren 13an emana, eteten zen, horrek berekin ekartzen zituen onura guztiekin.

LAUGARRENA.- KJEBren 2017ko ekainaren 15eko Erabakiaren bidez, baietsi egin zen Arraunketako Euskal Federakundearen presidentearen 2017ko maiatzaren 12ko Ebazpena eteteko kautela-neurria, eta ondorioz gabe utzi zen, ebazpen horren aurka jarritako errekurtsua ebatzi arte, Arraunketako Euskal Federakundeak [REDACTED] kirolariari 2017ko denboraldirako emandako lizentzia eteteko neurria.



ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Aurrekarietan azaldu den moduan, Arraunketako Euskal Federakundeak, 2017ko ekainaren 14an, 2017ko maiatzaren 12an emandako ebazpena baliogabetzea erabaki zuen. Ebazpen haren arabera, [REDACTED] jaunaren lizentzia, ***** zenbakia zuena eta Federazioak 2017ko otsailaren 13an emana, eteten zen, horrek berekin ekartzen zituen onura guztiekin.

Ebazpen hori La Planchada Arraunketako Kirol Elkarteak aipatutako kirolariari emandako eta Kantabriako Arraunketa Federazioak berretsitako askatasun-agiriaren ondorioa da.

Egoera hori dela eta, errekurtsoren xedea berehala galdu da eta horrek espediente amaitutzat ematea eta artxibatzea justifikatzen du.

BIGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 17.4 artikularen arabera, «*erabakitako kautela-neurriak indarrean egongo dira espediente izapidetzen den bitartean, harik eta behin betiko ebazpenaren bidez berretsi edo bertan behera uzten diren arte*».

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBk honako hau

EBAZTEN DU

1.- 41/2017 zenbakia duen espediente hau amaitutzat ematea eta artxibatzea, Arraunketako Euskal Federakundeko presidentek 2017ko maiatzaren 12an emandako ebazpenaren aurka jarritako errekurtsoren xedea berehalakoan galdu delako.



2.- Efekturik gabe uztea KJEBren 2017ko ekainaren 15eko Erabakiaren bidez onartutako eteteko kautela-neurria, espedientea behin betikoz ebaztearen ondorioz.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a

JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea